




Esnalek eta Gorrotxategik bigarren mailako finala jokatuko dute gaur

GIPUZKOAKO Txapelketa ari dira jokatzeko Esnal eta Gorrotxategi pelotari hernaniarrak, eta gaur, bigarren mailako finala jokatuko dute, Bergaran. Aurkari, Usurbilgo Huizi eta Txapartegi pelotariak izango dituzte. Hernaniarrak finala irabazteko faboritoak izango dira, txapelketa ezin hobea egiten ariteaz gain, sasoi betean baitaude. Partidua gaur 10:00etan. /3

Udal Txistulari Bandaren kontzertua gaur Milagrosan

EGUBERRIETAKO kontzertua emango du gaur Udal Txistulari Bandak Milagrosan. Kontzertuan gainera, Miren Zubillaga pianojolearen laguntza ere izango dute txistulariek. Eguerdiko 13:00etan hasita, hauek izango dira, besteak beste, joko dituzten piezak: *Tomas acebal 'El bala', Ordoitz, Sei doinu Xuberoar eta Lapurdiko bi dantza.* II

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Urteko kuota eta mus txapelketa

Osiñaga Auzo Elkartekoak urteko kuota kobratzen ibiliko dira gaur etxez etxe. Bestalde, Elorrabi sagardotegian, Gabonetako mus txapelketa jokatu dute, gaur, 16:00etan. /2

◆ ERRUGBIA

Erraz irabazi zuen atzo Hernanik

Aurkari erraza izan zuen atzo Hernanik Landaren, Belanos, eta erraz irabaztea lortu zuten. Bigarren zatian hernaniarrek bere jokua egitea lortu zuten, eta emaitza 51-0 izan zen. /3

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutiquek 8-4 irabazi zuen atzo

Partidurik galdu gabe zen Gure Txokoa taldearen kontra jokatu zuen atzo Yone Boutiquek. Partidu bikaina eta serioa izan zen, eta denbora guztian aurretik joan ondoren, arazorik gabe irabazi zuten hernaniarrek; 8 eta 4. /3

GAUR KRONIKAN

EAJ-PNV

2009ko aurrekontuak /2

Zaharren egoitza

Gabonetako ekitaldiak /2

Kirolak /3

Asteko agenda /6

Eskelak /6

Emakumeen Zentroa

Sukaldaritza ikastaroa /8

Astigarragako ekitaldiak /8



«Santo Tomasen feriya, txorixua eta ogiya»

TXISTORRA usaina nagusi izan da asteburu osoan zehar herriko txoko ezberdinetan, eta gaur Santo Tomas eguna izanda, izango da baita ere txistorra jateko aukera. Gaurkoan Goiz Eguzkin, Zaharren Egoitzan eta Gazte Txokoa ospatu dute. Atzo eta herenegun berriz, Inmaculada ikastetxean, Kaxkoan eta Orkolagan ospatu zuten, giro ezin hobean. /6

YOLANDA

estética zentrua

Fotodepilazio berria
Gaztako tratamendua Argi bidez
Antiakne tratamendua
Azal mantxak
Plataforma bibratzailea

**ZORIONAK
eta
URTE BERRI ON !!**

Prezio egokituak eta pertsonalizatuak

estetica@yolanda.infonegocio.com ATZIEITA 2, 1da. Tel: 943 55 32 78

LOKAL PUB

Gabonetan pre
Kardaberaz 3, HERNANI

gabonetako eskaintzak lamina eta kuadroetan

gimets
marketingintra

negutia onartzen
estatuaren eta enpresaren gaitasunak eta erabilera erabilgarria eta erabakigarria
ordularen gaitasunak erabakigarria

Zubirio Poligonoa C1 - Nabea 4 - 20120 Hernani
Tel: 941 391 199 - 841 714 721 - Email: info@gimetsmarketingintra.com
www.gimetsmarketingintra.com

EAJ-PNV-2009 UDAL AURREKONTUAK

«Aurrekontu proposamenaren kontra bozkatuko dugu; edukiagatik eta gestioa egiteko moduarengatik»

Andoni Amonarraizek, EAJ-PNVko bozeramaileak, Gobernu Taldeak aurkeztutako 2009ko aurrekontu proposamenaren kontra bozkatuko du. Erabakiaren zergatiak azaldu ditu prentsara bidalitako ohar batean.

ANDONI Amonarraizek, EAJ-PNVko bozeramaileak, jakinarazi du Gobernu Taldeak aurkeztu duen aurrekontu proposamenaren kontra egingo duela. Bi arrazoi aipatu ditu, «aurrekontuen edukia eta gestioa egiteko modua».

Udal aurrekontuak

Andoni Amonarraizen ustez, Udala «botuen gehien-go bilatuz gobernatu behar da». Aipatu du, herri honi eragiten dioten erabakiak batzordeetan landu eta Plenoan onartu behar direla, eta Gobernu Taldeak aurreikusitako batzorde guztiak deitu beharko lituzkeela

«udala egoki kudeatzeko».

Horrekin batera nahi luke «Politika Sozialean aurrera atera beharreko ekimenak zein diren definitzea; izan ere, Politika Sozialerako aurrekontuaren %94 *gastu ezberdinak* bezala agertzen da, eta uste dugu, Politika Soziala garrantzitsua dela eta ekimenak definitzea eskatzen duela».

Kanpoko asesoreetan gastatzen dena «razionalizatzea» ere nahi luke bozeramaileak.

Udalak politika zorrotzagoa egitea ere nahi luke Andoni Amonarraizek: «aurrekontuak kuadratzeko eskatzea, aurreikusten den 980.000ko pres-

tamoa alde batera uzteko». Nahi luke, baita ere, «Gobernu Taldeko politikarien soldatak izoztea eta berriro ere ez igotzea, azken urteetan oposizioko kideen dietak igo ez diren bezala».

● **Amonarraizek dio, nahi luketela «Politika Sozialean aurrera atera beharreko ekimenak zein diren definitzea; aurrekontuaren %94 *gastu ezberdinak* bezala agertze baita»**

Kirol Patronatuko aurrekontua

Kirol Patronatuko aurrekontuei dagokionean azaldu du, kontra bozkatuko dutela baita ere: «aurrekontu hauek ez da sumatzen zein norabide jarraitu behar duen herriko kirolak, soldatak... argia, ura eta gasa ordaindu, eta diru laguntzak mantendu besterik ez da egiten». Andoni Amonarraizek azpimarratu du «berriro ere entzun gor» egin diotela EAJren proposamenari. Proposamen horrek ur parteko tabernaren montajearekin zer ikusia du, gure ustez dirua aurrezteka- rriko lukeena».

Ongintzako aurrekontuak

Bukatzeko, Ongintza patronatuko aurrekontu proposamenaren kontra bozkatzeko arrazoiak azaldu ditu EAJko bozeramaileak: «alde batetik, etxez etxeko zerbitzuko orduak gutxitu egingo direlako, eta Gobernu taldea ez delako kapaza izan, Udalak Ongintzari egin beharreko ekarpena IPCarekin batean igotzeko, soldatak IPCa baino %2,3 gehiago igo ditunean».

Horrekin batera, aipatu du Patronatua kudeatzen dutenek ez dutela bete «informazio eta parte hartze politikarekin, 52 zuzendaritza batzorde proposatu dira eta 12 burutu dira azken urtean». II

❖ ZAHARREN EGOITZA

Ekitaldiz betetako gabonak pasako dituzte Zaharren Egoitzako aiton-amonek

Gabonak iritsi dira Maria Magdalena Zaharren Egoitzara, eta ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte. Gaur arratsaldeko 17:00etatik aurrera, txistorrada izango dute. Bihar, 18:00etan, Hernaniko Jubilatuen Abesbatzaren kontzertua izango da. Asteartean, Gabonetako bingo berezia, 17:00etan hasita. Asteazkenean, Eguberri bezperan, Olentzeroren bisita izango dute eta Gabon kantak kantatuko dizkiete. Ostiralean berriz, Igel txapelketa izango dute. Abenduaren 27an, larunbata, Puntto Txapelketa, eta egun bat beranduago, Toka Txapelketa. Urte Zahar egunean eta urtarilaren 2an berriz, Bingo Berezia izango da. Azkenik, urtarilaren 5an, erregeen bisita jasoko dute. II

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Kuota jasotzen ibiliko dira gaur

Osiñaga Auzo Elkartekoak kuota jasotzen ibiliko dira gaur etxez etxe. Kuota urteroko moduan, 10 eurokoa izango da, eta trukean, elkarteak euro bateko Gabonetako loteria banatuko du auzokoen artean. Loteriarekin batera, gabonetako saski baten zozketan parte hartzeko boletoa ere emango dute. II

Mus txapelketa Elorrabin

Gaur mus txapelketa izango da Elorrabi sagardotegian. Izena txapelketa jokatu aurretik eman beharko da sagardotegian bertan 20 euroren truke. Irabazleen artean banatuko diren sariak honakoak izango dira: lehenengo saria, bi txerrikume eta txapelak; bigarren saria, bi urdaiazpiko eta trofeoak; hirugarren saria, arkume eder bat; laugarren saria, txuleta bikainak. Txapelketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da, Elorrabin. II

❖ MUSIKA ESKOLA

Gabon kantak kantatzen ibiliko dira kalez kale, bihar

Musika Eskolako ikasleak Gabon kantak kantatzen ibiliko dira bihar kalez kale; arratsaldeko 17:00etatik aurrera. II

❖ ANTZERKIA

1.728 animalia kontu antzerkia izango da ostiralean Biterin

Herriko haurrek antzerkiaz gozatzeko aukera izango dute datorren ostiralean. 1.728 *antzerki kontu* izeneko antzerkia izango da Biteri kultur etxean. Antzerkian elefante baten istorioa kontatzen da: elefantea uharte bakarti batera joaten da dozena bat lagunekin, eta bi esploratzailekin. Bertan, uste baino denbora gehiago egon beharko dute. Ostiralean, 19:30etan, Biterin. II

ATXIKI
TABERNA-JATETXEA

Eguneko menua 9 euro
Larunbatetan karta

Pintxoak, bokatak, zatiak...
Olorduak, eramateko

Urtean urtemugak antolatzen ditugu

ATXIKI, Hernaniko kiroldegian.
Tel: 943 55 18 86

IBILKOM

KARROZERIA IBILGAILU INDUSTRIALAK
TURISMOAK ETA FURGONETAK KARROZATUAK

TXAPA - PINTURA  BEIREN TINTATZEA
IBILGAILUEN ROTULAZIOA

KAMIONETAK
BOLKETEAK - GRUAK
ISOTERMOAK - HOTZ EKIPOAK

ARALAR
TABERNA



GIRO EDERRA
ETOR ZAITREZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

◆ ERRUGBIA

Hernanik egurra Belenosi, 51-0

Gaurko Gernikak jokatuko duen partidua galtzen badu, lider izango da berriro ere Hernani. Hala ere, puntutan berdinduta izango dira.

ERRAZ irabazi zion atzo Hernanik Belenosi, 51-0. Partiduko lehenengo zatia nahiko motela izan zen, eta hernaniarrak Belenosen jokuan sartu ziren. Baina, hala ere, eta gauza haundirik egin gabe, atsedenaldira, 22-0, aldearekin joan ziren hernaniarrak.

Bigarren zatian berriz, txuri berdeak beraien jokoa egitea lortu zuten eta askoz hobeto jokatu zuten. Aurkariak gainera, behera egin zuten, eta azken emaitza 51-0koa izan zen.

Gernikaren partidua zain Hernaniarrek egin beharreko lanak ezin hobeto egin zituzten atzo, eta orain, itxoin egin beharko dute. Gernikak, sailkapenean aurkari zuzenak, gaur jokatuko du partidua, eta emaitza oso garrantzitsua da hernaniarrentzat.

Joan den asteburuko aukera bikaina galdu arren, txuri berdeak lider postua lor dezakete gaur. Gernikak irabaztea lortzen ez badu, Hernanirekin puntutara berdinduta izango da sailkapen nagusian. ||



Hernanik Belenosen zelaian eduki zuen baloia, partidu guztian.

◆ PELOTA

Esnal eta Gorrotxategik 2garren mailako finala jokatuko dute gaur

Esnal eta Gorrotxategi pelotari hernaniarrek finala jokatuko dute gaur, Gipuzkoako Txapelketako 2garren mailan, eskuz binaka. Aurkariak Usurbilgo Huizi eta Txapartegi izango dira. Hernaniarrak ezin hobeto dabil-tza azken partidutan, eta irabazteko faborito izango dira. Partidua, gaur, Bergaran, goizeko 10:00etan hasi-ko den jaialdian bigarrena. ||

◆ WATERPOLOA

Garaipen haundia lortu zuen Hernanik atzo Castellaeren kontra

Castellae liderraren kontra jokatuko duen atzo Hernaniko waterpolo taldeak eta garaipen haundia lortu zuen. Castellae denboraldiko partidu guztiak irabazita zetorren kiroldegira, baina hala ere, ezin izan zuen hernaniarren kontra. Hernaniko taldeak ondo eutsi zion partiduari eta jokalaririk inportanteak falta arren, garaipena etxean gertatzea lortu zuten, 10-9 irabazita. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutiquek sailkapenaren goialdean jarraitzen du, atzo Gure Txokoari irabazita

Partidu serioa eta polita jokatu zuten atzo Yone Boutiquek eta Gure Txokoak. Hernaniarrek partidu bikaina jokatu zuten, eta 8-4 irabazi zioten Lesakako taldeari. Partidu osoan zehar aurretik izan ziren eta hori izan zen partiduko gakoa. Hernaniarren golak Davidek, Miguelek (5) eta Iosuk sartu zituzten. ||

J.A. TORRES

-ARGAZKILARITZA- IMAGE CENTER

**MERKEAGO TOPATZEN BADUZU
DIFERENTZIA EMANGO DIZUGU**



kalitatean
zerbitzuan
prezioetan

-%3



**HERNANIN EROSTEN BADA
HERNANI SENDOTZEN DA**

ARGAZKITAN HERNANIKO ESPEZIALISTAK

J.A.TORRES-eko taldeak:

Jose Antonio, Rosana eta Fernando-k
Eguberri zoriontsuak opa dizkizue.
Eskerrik asko zuen konfiantzagatik.



**FE-330 NE K1GB+FU +FUNDA
139,00 €**

+1Gb TXARTELA

Opari pertsonalizatuak

*Ipini zure argazkiak 600 artikulu baino gehiagotan!!
Tazak, almoadoiak, liburu digitalak, karikaturak...*



**DSC-W150B
179.00 €**



**EOS 1000D + 18-55 IS
449,00 €**

Atzieta kalea, 2 - Hernani ☎ 943 33 19 15
Idiazabal, 21 - Urnieta ☎ 943 00 96 19

LIBURUDENDA • PAPERTEGIA

LEOKADI STI

Hemen dituzu behar dituzun opariak

Gabon zoriotsuak opa dizkizuegu guztioi

Gaur goizean eta anatsaldean irekita
 Bihor goizean

☎ 943 551 229
 Urbieta, 8 - behea

Asun Esna I
 bitxigintza

Eguberri On!!

Bitxien konpainiak
 egiten ditugu.

Enkarguak lanak
 zila eta umarekin.

10%
 15%

Larramendi 3
 HERNANI 20120
 Tifa. 943 33 04 78

ARGAZKI DIGITALA

Zorionak eta
 Eguberri on!

ETXARRI

HERNANI ANDOAIN

3 click

apaindura

OIHALA

hogar

EGUBERRI ON!!

Eikano, 11
 Tel. 943 55 64 87 FILUNAN

GABON HAUETAN BIDAIK OPARITU

HOTEL LIBER & SPA ***** 85€ HERNANI 2000 + 1000 + SPA	CASONA CAMINO REAL 127€ HERNANI 2000 + 1000
CASONA LAS 5 CALDERAS 121,02€ HERNANI 2000 + 1000 + 1000 + 1000 + 1000	HOTEL SANTUARIO DE ARANTZAZU 89€ HERNANI 2000 + 1000
ARTEAGA GAZTELLA 150€ HERNANI 2000 + 1000	GRAN CANARIA 2 HELDU 1.216€ HERNANI 10-12 HELDU 3000 + 1000 + 1000 + 1000 + 1000

...ETA AUKERA GEHIAGO GURE BULEGOAN

HERNANI BIDAIK
 Hernani, 11
 943 33 00 49
 hernani@bidaiak.com
 www.hernanibidaiak.com

ame

etxe tresnak - a

EGUBERRI ON G

Txirrita kalea, 13-15
 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 11 26

HERNANIN



OLENTZEROK BADAKI OPARIAK NON AURKITU

aiko - maiko

neguko arropa,
 disainu berriak,
 bitxiak...

Zorionak guztioi!

kanalea 1000, 4 - hernani

www.aiko-maiko.com

UKERDI

maileak
 berriak
 kurtak

Ploystok Avot

EGUBERRI ONI
URTE BERRI ONII

Kalea 1000, 51 - 943 551 2022

valen

Zorionak eta
 Eguberri On!!

Latsunbe, 5 - HERNANI-

Eskulanak

AURKI

urte guztian
 ikastaroak

Eguberri On!!

Tel.: 943 55 77 56
 Eikano 6
 HERNANI

DEPORTES - KIROLAK

MITXEL

EGUBERRI ON!!

Zure kiroleko opariak
 Mitxelen hartu ditu
 Olentzero!!

KARDIETA ALDIA, 1 BIS - 943 555 852

la

10 - 943 2431

MAUTRENT
 MODA

-%20 -50 haur jantzieta
 -%20 zakuetan

la ket

Jantzi eta osagariak

laket

Kardaberaz, 17 - Tel.: 943 553 678
 20120 HERNANI

Zorionak eta Eguberri On!!

Ilargi

kardaberaz, 7
 943 55 34 65

Ondo pasa gabonetan!!

AKZEN KILOMETROA

EGUBERRI ON GUZTIOI!!

943 24 71 41

Marekuts, 11 (Jatorriko zentrala)


MENDI LORE

ZUKO GAZTAK - OPATZAK

 Gabonetarako...
...PREST!!

ZORIONAK!
BEGIRA OPTIKA

Zorionak eta Eguberri on!!



Urbietza 8 - Tel.: 943 854 154

biokbi

o p t i k a

 Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu!


Antzola, 14 - Tel.: 943 33 68 85

jar

ultzariak

GUZTIOI!!

 BARRIO PLAZA
BARRIO PLAZA

3 55 16 03


**antenas
Telemar**

 Filiano, 13 - 943 33 26 00
943 55 33 99

Gabonak ondo pasa!

Eguberri On!


cenor
BALANTXA
cenor

ANTZOLA, 12 - 943 576115 HERNANI NAGUSIA, 17 - 943 334022


 NESPRESSO KRUPS ESSENZA
AUTOMATIKOA

159⁹

- 943 334 022


 NESPRESSO KRUPS ESSENZA
MANUALA

129⁹

- 943 334 022

PREZIO HOBARENAK

MERKEGO AURKITZEN BADIUZU PREZIO HORRETAN BALDUO DIZUGU

PREZIO BEREZIAK

-%10

-%20

-%30

yone

boutique

Nagusia, 63

Tel.: 943 55 74 73

HERNANI

EURENE

JANTZI DENDA

 Zorionak eta
Eguberri on!!

Hagar kalaa, 14 - Hernani

Tel. 943 33 21 99


 Hemen aurkituko
dituzu
Gabonetako
eskaintza hoberenak.
-%30
Nikita

JANTZI DENDA

☎ 943 331 236

Nagusia, 40 - HERNANI -

 Eguberri On
guztioi!

nikita

943 331 236 - Nagusia 40 - HERNANI

 ZUKO GAZTAK -
OPATZAK

Eguberri on guztioi!!!

hoki

ZORIONAK!!

LENTZERIA

Agustindarren plaza, 4

HERNANI

☎ 943 24 32 10


 Eguberriko
PREZIO BEREZIAK

EGUBERRI ON!!

ILAZKI JANTZIDENDA - IZPIZUA, 27 - Tel.: 943 55 59 86

URRATS

OINETAKOAK

 Gabonetan
ondo-ondo pasa!!

Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564

Mahuka


 Zorionak eta
Eguberri on!!

Kardoberoz kalaa 28 - behe

Kera

 Zorionak eta
Urte berri On!!

 Gudarien Enparantza, 7
Tel.: 943 33 65 62

Caizea

labonak

Kartotegi

Martzena

Eguberri On!!

 Kardoberoz, 2
Tlf. 943 55 55 19

KRANKA

JANTZI DENDA

DENA -%20

Zorionak eta ondo pasa gabonetan!!

Gudarien Plaza, 13

Tel.: 943 557 149

HERNANI



Santo Tomas eguneko ospakizunetan, txistorrak eta giro onak jendetza erakarri du
Gaur Santo Tomas eguna ospatzen da Euskal Herriko hainbat herritan, baina Hernanin, ostiralaz geroztik izan da txistorra jan eta eguna ospatzeko aukera. Gaur esaterako, oraindik ospatu ez duenak edo erreplikatu nahi duenak izango du festa giroa Goiz Eguzkin 11:00etan, Zaharren Egoitzan, edo Gazte Txokoan. Santo Tomas eguna ospatzen ostiralean hasi ziren Inmaculada ikastetxean; Santo Tomaseko feria antolatu zuten, barazki, txistorra eta beste hainbat posturekin. Atzo berriz, herritar ugari hurbildu ziren San Joan Konpartsak Plaza Berrin antolatu zuen festara. Goizean talogileak izan ziren eta arratsaldean berriz, erromeria; txosna ere jarri zuten eta bertan txistorra egun osoan zehar erosi ahal izan zen. Atzo baita ere, Orkolagan, auzotar eta herri-tarrak bildu ziren, txistorra eta gaztainak jan eta ondorengo toka txapelketara. ||

X Asteko agenda

- ABENDUAK 21, igandea:**
- **Txistorrada:** Goiz Eguzkin, 11:00etan. Zaharren Egoitzan, 17:00etan. Gazte Txokoan.
- ABENDUAK 22, astelehena:**
- **Gabon kantak kalez kale:** Musika Eskolako ikasleak. 17:00etan.
 - **Hernaniko Jubilatuen Abesbatza:** Zaharren Egoitzan. 18:00etan
- ABENDUAK 23, asteartea:**
- **Gabonetako Bingo berezia:** Zaharren Egoitzan. 17:00etan
- ABENDUAK 24, asteazkena:**
- **Olentzeroren bisita:** Zaharren Egoitzan. 16:00etan
 - **Gabon kantak:** Zaharren Egoitzan. 17:00etan
- ABENDUAK 25, osteguna:**
- **Ekitaldia:** izenburua. Deskribapena, tokia, ordua.
- ABENDUAK 26, ostirala:**
- **Ipuin kontaketa:** 1.728 animalia kontu. Antzerkia, Biterin, 17:00etan.
 - **Igel txapelketa:** Zaharren Egoitzan. 17:30etan.
 - **Ginkana erraldoia:** Gazte Txokoan.
- ABENDUAK 27, larunbata:**
- **Puntto txapelketa:** Zaharren Egoitzan. 18:00etan.
 - **Ginkana erraldoia:** Gazte Txokoan.
- ABENDUAK 28, igandea:**
- **Ekitaldia:** izenburua. Deskribapena, tokia, ordua.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

† Teodora Iriberry Biurrarena

ANDREA
Abenduaren 14an hil zen, 82 urte zituela.
- Goian bego -

Haren seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztioi eta baita elizkizunetara etorri zineten guztioi ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2008ko abenduaren 21ean



ERAKUSKETA BERRIA


ARISTREGI Sukaldeak

SUKALDE ETA KOMUNEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
ELEKTROGAILUAK
MAHAI ETA AULKIAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA



ERAKUSKETA:
Perkaldegia 10W
Antziola
HERNANI
☎ 943 55 06 88





LANTEGIA:
I. Iriberry Etxe,
1. solairua,
25 B. lokala
HERNANI



Aristregi Sukaldeak 30 urte daramazki Hernanin altzariak egiten. Orain denda berria zabaltzen du eta bertan, sukaldeko altzariak gain, komuneko altzariak, armaru enpotratuak, elektrogailuak... aurkituko dituzue. Antziola auzoko Perkaldegia kalea 10W zenbakian.

erabili zure poltsa eta eraman 1.000€-ko balioa duen saria

Zozketan parte hartzeko: beharrezkoa da erosketak egitean zure poltsarekin joatea. Poltsak ez du plastikozkoa izan behar. Dendek ere banatuko dituzte poltsa bereziak, baina helburua da norberak bere etxeko poltsa erabiltzea.

Urtarrilean 3 sari banatuko dira, bakoitza 1000 €-ko balioa duena. Sari horiek Kale Nagusia 7an daude ikusgai, Erakusleiho batean (Ibañez dendan).

Zure poltsarekin egiten duzun erosketa bakoitzeko zozketarako txartel bat izango duzu.

IKUR HAU IKUSTEN DUZUN DENDA GUZTIETAN HARTU DEZAKEZU PARTE ZOZKETAN

Gogoratu, plastikozkoa ez den poltsa erabiliz gero, zozketarako txartel bat!

JANARI-DENDAK

AIKOR ELRA
ANSA
ARRIOI
EIZONDO
ELVEN
LOLLEKO
GORKORTXA
IRICO DIF
ITZAR
M^o CRUZ
OIA
PRIMA

OKINDIGIAK

ANTIOLA
BIKAIN
LSNAL
GAILUR
IRRICORONA
LABETXKI
LIDARKA
OIHOR
TARAJA

HARATEGIAK

ALBERDI
ALKORTA
BALLEDI
GARRIN
IRAKI
MENDIZABAL
PINEDA

ARRANDEGIAK

ITXASPE
MARTIL

ESTANKOAK

PACOI A
PORTALONDO

ARROPA DENDAK

AIKIN
BUEFNE
CLARY
ELAZKI
KLRA
LAKHI
NOVEDADES VAI EN

ZAPATA-DENDAK

IRIOYEN
MAITE
URRATIS

MERTZERAK

HOKI
HAIZA
MURKA

HAUR DENDAK

KANIK
KULUXKA

BITXIAK ETA KOMPLEMENTUAK

ASIN ISNAI
DISTR
KAKO
MARINA
MIXIXULO /
MIXIXULO 27

ELEKTROGAILU-DENDA ETA ARGAZKIGINTZA

AMECAR
ANEKO
BALANIXA (Antzola)
BALANIXA (Nagusia)
CUIRO IMAGE CENTER

DEKORAZIO ETA ALTZARIAK

ARRIOI
ARIL KOKIA
AURKI
BIKAS
LANDARIBAR MARGOKA

BAZARRAK

CENTRO CEN
GALLERIAS BULN TOLDO

SUPERMERKATUAK

U.M.
RINOSKI

BOTIKAK ETA PARAFARMAZIAK

AIZPURA
CASTILLA ALBISU
FARMATUTIA

BELARDENDAK

GONKO
MASUSTA
TILIN TOLON

LIBURU ETA ALDIZKARI DENDAK

BALANTXA
IRURETAGOYENA
LLOKADISI

BESTEAK

BITXOS
FONTANERIA REDONDO
HERNANI OPTICA
BASTIDORERIA
KALANONA
KUTKO
MIXILL KIOLOK
ONHII INKORMAKIA
URRITA KOKIAK
URRITA BURDINDENA
XARMANI

Urtarrilean erakusleiho bat
zozketatuko da ikusteko: Kale Nagusiko 7.era (Ibañez)

Zozketa urtarilaren 30ean egingo da.

Sariak bakoitzak 1000€-ko balioa duen
3 lote zozketatuko dira.

hernani



Diputación Foral de Gipuzkoa
Operación Portal de Gipuzkoa

HERNANI
MODAN DAGO

TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauetz:** Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA

GAUR



Neguari giro eguzkitsuekin emango diogu hasiera, nahiz eta goizaldean laino bat edo beste izango den. Temperatura 10-15°C inguruan ibiliko dira.

BIHAR



Giro egonkorra, eguzkitsua eta hotzarekin hasiko da astea. Iparraldeko haize ahula ibiliko da, baina tenperaturak berdin mantenduko dira.

(euskalmet)



Mokadu goxoak

Emakume zentroan.

Sukaldaritza ikastaroa izan zuten ostegunean Elcano 17 Emakume zentroan. Ikastaroa Luis Irizarren eskolako ikasleek eman zuten eta Xalaparta elkartean izan zen. Bertan gabonetako plater goxoak prestatzen ikasi zuten, besteak beste: bakailu entsalda konfitatua eta ahate magreta, fruitu gorri eta sagarrarekin. ||

Musika eskola

Xixonen.

Musika eskolako txistulari, dulzainero eta albokariak Xixonen izan ziren joan den asteburuan. Bertan, Oizatzungo Herri Musika Eskolakoekin batera, kontzertua eskaini zuten. Kontzertua Xixongo La Quintana eskolak antolatu zuen eta amaieran, euskaldun eta asturiarrek batera jo zuten. ||



ASTIGARRAGA

Gabonak eta haurrentzako emanaldi eta jolasak Astigarragan

Ekitaldiz betea izango da hilabete bukaera Astigarragan. Gaur, 11:30etan, Gabonetako kanten emanaldia izango da elizan. Bihar, Zuhaitz emakumeen elkarteak Jaiotza jarriko du kultur etxe aurreko lorategian. Eguberri bezperan berriz, goizean, Olentzero ibiliko da kalez kale Xaguxar taldearekin; eta arratsaldean, Oialumetik aterata, Etxerat elkartearekin ibiliko da. Abenduaren 27an eta 30ean berriz, haurrentzako emanaldiak izango dira. Abenduaren 27an, *Made in jabon* taldearen eskutik, musika, umore eta xaboi burbulla erraldoekin osatutako ikuskizuna izango da kultur etxean. Sarrerak salgai daude 2,5 euroan, kultur etxean bertan. Abenduaren 30ean aldiz, haurrentzako jolasak izango dira, goiz eta arratsalde, Barandiaran plazan. ||

IRAGARKI MERKEAK

Sarrera bat aurkitu dugu Plaza Berriko servikutxan, ahaztu duenak **deitu: 653 748 350**.

Pisua salgai, azken pisua. Eguzkitsua, aszensora, **ganbara...Deitu: 943 55 04 26**

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 60m2 + almazena 30m2. **Deitu: 616 383 168**.

Alokatzeko: **Pabiloi industrial berri-berria**. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarraga). **943 33 05 16 (20:00etatik aurrera)**.

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m2 (249.000euro). **Deitu: 671 124 594**.

Etxeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. **Deitu: 616 886 660**.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa.

Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. **Deitu: 943 33 07 35** (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78**.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Amegar

etxe tresnak - altzariak

50 urte

1958-2008

ZOZKETA

2008an erosketa egin duten bezero guztien artean (altzari edo etxe tresnak) urte amaieran LCD 32" TB MODERNOA zozketatuko dugu.

Zorte on!

Txirrila kalea, 13-15

Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03



HDMI x3



32LG3000

499€

37LG2000

689€

DECORactiva

ACTIVA

RENOVE PLANA
ELEKTROGAILUETAN



Erabili ezazu
BERRIAK txartela



7 KG.

1400 R-P-M

A+

599€

-105€ renove

494€